

Euskara hizkuntza nasugia Zumaian

Kaixo, arratsaldeon gaur galdera batzuk egingo dizkiot Leireri, Zumaia 2050 nola ikusten duen berak, 5 zatitan banatuta egongo da eta biztanleriarekin hasiko gara.

Zein izango da hizkuntza nagusia Zumaian?

Nire ustez, orain bezala euskara izango da. Erdaldunak egongo direla badakit, baina euskara izango da gehiena hitz egingo dena.

Sozialak izaten jarraituko dugu ala bakoitza bere etxean geratzeko ohitura nagusituko da teknologiaren ondorioz?

Nire ustez, jende gehienak sozialak izaten jarraituko dugu, salbuespenak egongo dira, baina gehienak sozialak izaten jarraituko dugu.

Gazteak herrian biziko dira edo inguruko herrietara joango dira etxebizitzaren prezio altuen ondorioz? Eta zer egin dezakete udalek arazo hau konpontzeko?

Egia esanda, arazo larria da hau, geroz eta garestiago daudelako pisuak Zumaian, Hortaz gehienek kanpoaldean bizi beharko dute, eta egin daitekeena da, etxebizitza huts horiek, herritarentzat jarri.

Euroa erabiltzen jarraituko al dugu?

Nire ustez txartelarekin eta mugikorrarekin ordainduko dugu guztia.

Gobernuak jarraituko al du zerbitzu publikoak (hezkuntza, osasungintza...) ordaintzen? Edo herritarrok ordaindu beharko ditugu?

Gatazka asko egon dira gai honengatik, pribatura jo beharko dugula esanez, baina espero dut ezetz.

Orain, Jasangarritasunera pasako gara. Bizimodu kontsumista bat izaten jarraituko al dugu?

Bai, dudarik gabe.

Kotxeek gasolina erabiltzen jarraituko dute, ala elektrikoak izango dira gehienak?

Nire ustez, gasolinarekin jarraituko dute, elektrikoarena oraindik gauza asko aldatu behar dira.

Klima aldaketara pasako gara, Uraren kalitateari dagokionez, Zumaia hondartzan lasai bainatzeko aukera izango al dugu?

Espero dut baietz, kontzientzia hartu dugu zaindu egin behar dela, eta nire ustez bainatzeko aukera izango dugu.

Klima aldaketaren inguruan neurri zorrotzagoak hartuko ditugu, ala beste aldera begira jarraituko dugu?

Hobe izango da neurri zorrotzak hartzea eta denek jakin dezatela zenbat kalte egin ari garen.

Jendartera pasako gara orain.Herriko festa nagusiak ospatzen jarraituko al dugu?

Bai, nire ustez ohiturek jarraituko dute

Azkenengo galdera,Herriko dendak zabalik jarraituko al dute? Edo guztia online erosteko aukera nagusituko da?

Orain ere nabaritzen da herriko denda asko itxi egin direla, gehienetan online erosten dugu erosoagoa edo merkeagoa delako. Horregatik nire ustez online erosteak garrantzia handiagoa hartuko du, eta denda asko itxiko dira, baina janariari dagozkienek irekita jarraituko dute.

Bueno hau izan da dena, eskerrik asko zure denbora gatik.